



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA  
BILBOKO UDALAREN ARTEKO  
LANKIDETZA-HITZARMENA, B  
ACCELERATOR TOWER ENPRESAREN  
FUNTZIONAMENDURAKO  
BEHARREZKOAK DIREN JARDUERAK  
EGITEKO

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA  
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL  
AYUNTAMIENTO DE BILBAO PARA LA  
REALIZACIÓN DE LAS ACTUACIONES  
NECESARIAS PARA EL FUNCIONAMIENTO  
DE B ACCELERATOR TOWER

### BILDU DIRENAK

### REUNIDOS

Alde batetik Unai Rementeria Maiz Bizkaiko Ahaldu Nagusia, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenenan jarduten duena, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 1987/3 Foru Arauak emandako ahalmenak direla bide.

Unai Rementeria Maiz, Diputado General de Bizkaia, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, en virtud del artículo 23 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre la Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Juan María Aburto, Bilboko alkatea, Bilboko Udalaren izen eta ordezkari izan jarduten duena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 b) artikulua ezarritakoa dela bide.

Juan María Aburto, Alcalde de Bilbao, en nombre y representación del Ayuntamiento de Bilbao, en virtud del artículo 21.1 b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

Alderdiek hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta bakoitzak dituen eskumenen arabera jardunez, honako hau

Las partes se reconocen capacidad jurídica necesaria para otorgar el presente convenio, y actuando en virtud de las competencias que cada una ostenta, de común acuerdo,

### ADIERAZTEN DUTE

### EXPONEN

I- Bizkaiko Foru Aldundiak, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bitartez, ekintzailetza bultzatzeko duen eskumena erabiliz, hainbat jarduera egin ditu Bizkaia ahalmen handiko ekintzailetzaren nazioarteko erreferentzia-gune gisa kokatzeko, pertsona ekintzaileek beren enpresa-proiektuak gauzatu ahal izan ditzaten, hazteko gaitasun eta nazioarteko lehiakortasun handiko enpresa berritzaile berriak abian jarri.

I- La Diputación Foral de Bizkaia, a través del Departamento de Promoción Económica, en ejercicio de su competencia de impulso al emprendimiento, viene desarrollando una serie de actuaciones dirigidas a posicionar Bizkaia como polo de referencia internacional en emprendimiento de alto potencial para que las personas emprendedoras puedan hacer realidad sus proyectos empresariales poniendo en marcha nuevas empresas innovadoras con alta capacidad de crecimiento y de competitividad internacional.



II- Bilboko Udalak, bere aldetik, Bilbao Ekintza, EPELen bitartez, Bilborako aberastasun ekonomiko eta soziala sortzea sustatzen du, enpresak erakartzea, sortzea, haztea eta sendotzea sustatuz, bai eta, oro har, herritarren enplegarritasuna hobetzea ere.

Ekintzailtza, beraz, bi administrazio publikoen helburu parekatua da, egungo gizarteen aberastasuna, enplegua eta ongizate bermatzeko beharrezkoak diren berrikuntza, lehiakortasuna eta hazkundera sustatzen dituen elementua den aldetik.

II.- Beren eskumenetan oinarrituta, eta Bilbon eta Bizkaian sare-lana sustatuko duten sustapen ekonomiko malgu eta parte-hartzaileko politika publikoen ereduarealitate bihurtzeko, eta nazioarteko nodo dinamikoekin lankidetzan, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten 2018ko abenduaren 21ean, Bilbon eta Bizkaian ekintzailtza sustatzeko. Hitzarmen horren bidez, nazioarteko ekintzailtza-zentro bat abian jartzea sustatu zuten, hura dinamizatzeko gai izango zen ekintzailtza-ekosistema oso bat sortzeko behar ziren eragile guztiak bilduko zituztena, eta Bilbon eta Bizkaian sortutako startupak kanpora ateratzea erraztuko zuen nazioarteko lotura bat izango zuena.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Beaz, SAUK, enpresen lehiakortasuna sustatzeko, garatzeko eta sustatzeko jarduerak egitea helburu duen foru sozietate publikoak, 2019ko irailaren 25ean hitzarmen bat sinatu zuten B Accelerator Tower, BATen zerbitzu-emakidako kontratuaren lizitazioa kudeatzeko, garai hartan Ekintzailtzaren Nazioarteko Zentroa zena. Azkenik, PriceWaterhouseCoopers Asesores de Negocios S.L. enpresa izan zen lizitazioaren esleipenduna, eta Beaz SAUK B Accelerator Tower enpresarentzat zegoen zerbitzu-emakidako kontratua sinatu zuten

El Ayuntamiento de Bilbao, por su parte, a través de Bilbao Ekintza, EPEL, promueve la generación de riqueza económica y social para Bilbao promoviendo la atracción, creación, crecimiento y consolidación de empresas así como la mejora de la empleabilidad de la ciudadanía en general.

El emprendimiento, por tanto, se configura como un objetivo compartido de ambas Administraciones Públicas en cuanto que elemento potenciador de la innovación, la competitividad y el crecimiento necesarios para asegurar la riqueza, el empleo y el bienestar de las sociedades actuales.

II.- En base a sus respectivas competencias y con el objetivo de hacer realidad un modelo de políticas públicas de promoción económica flexibles y participativas, que promuevan el trabajo en red en Bilbao y en Bizkaia, y en colaboración con los nodos internacionales más dinámicos, el Ayuntamiento de Bilbao y la Diputación Foral de Bizkaia suscribieron el 21 de diciembre de 2018 un convenio de colaboración para fomentar el emprendimiento en Bilbao-Bizkaia promoviendo la puesta en marcha de un centro internacional de emprendimiento que aglutinase a todos los actores necesarios para crear un completo ecosistema de emprendimiento capaz de dinamizarlo y con una conexión internacional que facilitase la salida al exterior de las startups generadas en Bilbao y en Bizkaia.

Por otro lado, la Diputación Foral de Bizkaia y Beaz, SAU, sociedad pública foral cuyo objetivo es la realización de actividades de promoción, desarrollo y fomento de la competitividad de las empresas, el 25 de septiembre de 2019 formalizaron un convenio para gestionar la licitación del contrato de concesión de servicios de B Accelerator Tower, BAT, entonces denominado Centro Internacional de Emprendimiento. Finalmente, la empresa PriceWaterhouseCoopers Asesores de Negocios S.L., resultó adjudicataria de la licitación, con quien Beaz SAU formalizó el

2021eko otsailaren 1ean. Hala ere, kontratu horretatik eratorritako finantzaketa-beharrak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Beaz, SAUren arteko hitzarmenean aurreikusitakoak baino pixka bat txikiagoak izan ziren, eta, ondorioz, aldatu egin ziren. Bizkaiko Foru Aldundiak BATi egindako ekarpena Beaz, SAUrekin sinatutako hitzarmen honen bidez gauzatzen da.

Inguruabar horiek guztiak kontuan hartuta, bi aldiz aldatu behar izan zen, 2019ko urriaren 21ean eta 2021eko abenduaren 10ean, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren arteko hitzarmena, errealitate berri horretara egokitzeko. Bilboko Udalak bere gain hartu zuen zentroari 7.380.462 euroko ekarpena egiteko konpromisoa 2021-2036 aldian.

III.- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren arteko hitzarmenaren indarraldia amaituta, Bilbon ekintzailtza-zentro bat ezartzeko beharrezkoak diren jarduketak egiteko, eta proiektuaren 1. fasea gauzatuta, bi aldeek egiaztatu dute egoera berri bat dagoela, eta jarduketa berriak behar direla, BAT Bilboko eta Bizkaiko ekintzailtza-ekosistema dinamizatzeko funtsezko elementu bihurtzeko, azelerazio-prozesuei ekiteko eta toki- eta nazioarte-mailan sortzen diren aukerak aprobetxatzeko beharrezko zerbitzuak eskainiz, enpresa berritzaile berriak sortuz. Hori dela eta, Kontrol eta Jarraipen Batzordeak, 2022ko abenduaren 12an egindako bilkuran (8. akta), Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren arteko hitzarmen berri bat formalizatzea erabaki du, bi administrazio publikoen arteko lankidetzartekatzeko, BAT, B Accelerator Tower munduko nazioarteko dimentsio konektatueneko ekintzailtza- eta berrikuntza-ekosistema izan dadin. Bertan, enpresen eta pertsonen erronkei irtenbidea emango dieten ideia eta proiektu berritzaileak sortuko dira.

correspondiente contrato de concesión de servicios para B Accelerator Tower el día 1 de febrero de 2021. Sin embargo, las necesidades de financiación derivadas de este contrato resultaron ligeramente inferiores a las previstas en el convenio entre Diputación Foral de Bizkaia y Beaz, SAU, lo que dió lugar a su modificación posterior. La contribución de la Diputación Foral de Bizkaia a BAT se hace efectiva a través de este convenio con Beaz, SAU.

Todas estas circunstancias hicieron necesario modificar en dos ocasiones, el 21 de octubre de 2019 y el 10 de diciembre de 2021, el convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao para adecuarlo a esta nueva realidad, asumiendo el Ayuntamiento de Bilbao el compromiso de contribuir al centro con la cantidad de 7.380.462 euros en el periodo 2021-2036.

III.- Una vez finalizada la vigencia del convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao para la realización de actuaciones necesarias para el establecimiento de un centro de emprendimiento en Bilbao, y ejecutada la Fase 1 del proyecto, ambas partes han constatado la existencia de un nuevo escenario que precisa de nuevas actuaciones encaminadas a hacer de BAT un elemento clave de la dinamización del ecosistema de emprendimiento de Bilbao - Bizkaia, ofreciendo los servicios necesarios para acometer procesos de aceleración y aprovechar las oportunidades que vayan surgiendo a nivel local e internacional mediante la creación de nuevas empresas innovadoras. Por este motivo, la Comisión de Control y Seguimiento, en la sesión celebrada el 12 de diciembre de 2022 (acta nº8), ha acordado formalizar un nuevo convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao que articule la colaboración entre ambas administraciones públicas para que BAT, B Accelerator Tower, se constituya en el ecosistema de emprendimiento e innovación de dimensión internacional mejor conectado del mundo donde surjan ideas y

IV- Hitzarmen honen xede den gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulutik ondorioztatzen den bezala, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1d) artikuluekin lotuta. Artikulu horien arabera, aldundien eskumena da ekonomiaren eta gizartearen garapena sustatzeko lankidetzeta, Herri Administrazioek arlo horretan dituzten eskumenekin bat etorriz.

V.- Sinatu beharreko hitzarmena administrazioen arteko hitzarmen bat da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2 a) artikuluan aurreikusia. Izan ere, ondorio juridikoak dituen akordio bat da, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak hartu dutena, bakoitzak bere eskumenen esparruan, eta interes orokorreko helburu komun bat lortzeko: Bilboko eta Bizkaiko ekintzaitzeta-ekosistema dinamizatzea bultzatzea, B Accelerator Tower-en bidez. Enpresa berritzaileak sortuz azelerazio-prozesuei ekiteko eta toki- eta nazioarte-mailan sortzen diren aukerak aprobetxatzeko sortu da hitzarmen hori. Gainera, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzeko, bitarteko eta zerbitzu publikoak batera erabiltzeko, onura publikoko jarduerak egiten laguntzeko eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria betetzeko beharrari erantzuten dio BATEk, aipatutako 40/2015 Legearen 48.3 artikulua eskatzen duen bezala.

VI- Bilboko Udalak BAT finantzatzen laguntzen du, guztira 7.380.462,00 euroko ekarpenarekin 2021-2036 aldian, eta zenbateko hori Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak jaulkitako ordainketa-gutunen bidez

proyectos innovadores que den solución a los retos de empresas y personas.

IV- La competencia sobre la materia objeto de este convenio corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia como resulta del artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento del Territorio Histórico de Bizkaia en relación con el artículo 36.1d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases de Régimen Local, que disponen que es competencia propia de las diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social, de acuerdo con las competencias de las Administraciones Públicas en este ámbito.

V- El convenio a suscribir es un convenio de naturaleza interadministrativa previsto en el artículo 47.2 a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, al tratarse de un acuerdo con efectos jurídicos adoptado por la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao, en el ámbito de sus respectivas competencias y para la consecución de un fin común de interés general como es impulsar la dinamización del ecosistema de emprendimiento de Bilbao-Bizkaia a través de B Accelerator Tower ideado para potenciar el desarrollo de los servicios necesarios para acometer procesos de aceleración y aprovechar las oportunidades que surjan a nivel local e internacional mediante la creación de empresas innovadoras. Además, BAT responde a la necesidad de mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, tal y como exige el artículo 48.3 de la citada Ley 40/2015.

VI- El Ayuntamiento de Bilbao contribuye a la financiación de BAT, con una aportación total de 7.380.462,00 euros durante el periodo 2021-2036 que se compromete a hacerlas efectivas mediante las correspondientes cartas de pago

gauzatzeko konpromisoa hartzen du, I. eranskinean adierazitako urtekoen arabera. Hitzarmen honetan 2023-2026 aldia arautzen da, nahiz eta beste lau urtez luza daitekeen, dagozkion zenbatekoekin.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak BATi egindako ekarpena gauzatu du Beaz SAUekin egindako hitzarmenaren bidez, zerbitzuak emateko kontratua lizitzatzeko, I. eranskinean ezarritako urterokoaren arabera..

VII- Horretarako, lankidetzaz-irizpideei eta eraginkortasun eta ekonomia handienari jarraiki, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako aginduetan eta aplikatzekoa den araudian Administrazio Publikoentzat ezarritako ahalmenak erabiliz, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak hitzarmen hau formalizatu dute B Accelerator Tower enpresaren funtzionamendurako beharrezkoak diren jarduketak egiteko, honako klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

### Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiaren (IFZ: P4800000D) eta Bilboko Udalaren (IFZ: P4802400D) arteko lankidetzaz-esparru orokorra ezartzea, BAT, B Accelerator Tower nazioarteko ekintzailtza-zentroaren errealitate eta premia berriei erantzuteko beharrezkoak diren jarduerak batera garatzeko.

emitidas por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, de acuerdo con las anualidades señaladas en el anexo I. Es objeto de regulación en este convenio el periodo 2023-2026, sin perjuicio de su posible prórroga por cuatro años más con sus correspondientes importes.

Por su parte, la Diputación Foral de Bizkaia hace efectiva su aportación a BAT a través del convenio celebrado con Beaz SAU para la licitación del contrato de concesión de servicios, de acuerdo con las anualidades establecidas en el anexo I.

VII- A tal efecto, atendiendo a los criterios de cooperación y máxima eficacia y economía, y haciendo uso de las facultades que para las Administraciones Públicas resulta del artículo 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público y demás preceptos concordantes y normativa aplicable, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao proceden a formalizar este convenio para la realización de las actuaciones necesarias para el funcionamiento de B Accelerator Tower, con arreglo a las siguientes:

## CLAUSULAS

### Primera. - Objeto del convenio

El objeto de este convenio es establecer el marco general de colaboración ente la Diputación Foral de Bizkaia, con NIF P4800000D y el Ayuntamiento de Bilbao, con NIF P4802400D, para el desarrollo conjunto de las actuaciones necesarias para dar respuesta a la nueva realidad y necesidades del centro internacional de emprendimiento BAT, B Accelerator Tower.

## Bigarrena.- BAT, B Accelerator Tower

2022an abian jarri zenetik, BAT funtsezko elementua izan da Bilbok eta Bizkaiak nazioarteko erreferentziazko ekintzailtzanodo gisa duten posizionamendua indartzeko, ekintzailtza-ekosistema oso bat sortzeko behar diren eragile guztiak biltzeko eta dinamizatzeko gaitasunarekin, bai eta enpresen sorkuntza-tasa nabarmen handitzeko eta tokiko eta nazioarteko enpresen eta korporazioen berrikuntzan eta barne-ekintzailtzean laguntzeko ere, berrikuntza irekiko dinamiken bidez.

BAT, B Accelerator Tower-en helburua da teknologikoki aurreratua den ehun ekintzailea espazio bakar batean kokatzea, startup eta korporateen elkarrekiko hazkuntza ekarriko duten elkarguneak bilatuz, bertan dauden enpresei nazioarteko beste kokaleku batzuekin konektatzeko aukera eskainiz.

BATen zerbitzuak ematen dira eta ekintzak egiten dira dorrean dauden enpresentzat interesgarriak diren enpresa-proiektuak eta startupak erakartzeko. Gainera, euskal ekosistema ekintzailea dinamizatzeko jarduerak eta ekitaldiak antolatzen dira, komunitatea sortzeko helburuarekin.

Zehazki, BAT, B Accelerator Towerrek honakoa eskaintzen du:

- ad hoc zerbitzuen gutuna korporazioentzat eta ETEentzat, berrikuntza- eta dibertsifikazio-prozesuak bizkortzeko,
- startupetarako ad hoc zerbitzuen gutuna, proiektuak bizkortzeko,
- ekosistemaren beste eragile batzuentzako ad hoc zerbitzuen gutuna.

## Segunda.- BAT, B Accelerator Tower

Desde su puesta en marcha en 2022, BAT se ha configurado como un elemento clave para fortalecer el posicionamiento de Bilbao y Bizkaia como nodo de emprendimiento de referencia internacional con capacidad de aglutinar y dinamizar a todos los actores necesarios en la creación de un completo ecosistema de emprendimiento e incrementar de manera significativa la tasa de creación de empresas y contribuir a la innovación y al intraemprendimiento de empresas y corporaciones locales e internacionales a través de dinámicas de innovación abierta.

BAT, B Accelerator Tower tiene por objeto ubicar en un único espacio tejido emprendedor de carácter tecnológicamente avanzado, buscando puntos de confluencia que lleven al crecimiento mutuo de startups y corporates ofreciendo a las empresas allí ubicadas la posibilidad de conectarse con otras localizaciones de ámbito internacional.

En BAT se prestan servicios y se realizan acciones para atraer proyectos empresariales y startups de interés para las empresas que estén ubicadas en la torre, organizándose además actividades y eventos dinamizadores del ecosistema emprendedor vasco con el objetivo de generar comunidad.

En concreto, BAT, B Accelerator Tower ofrece:

- carta de servicios ad hoc para corporates y pymes con el fin de acelerar procesos de innovación y diversificación,
- carta de servicios ad hoc para startups para aceleración de proyectos,
- carta de servicios ad hoc para otros agentes del ecosistema.

Hona hemen BATen helburu estrategikoak:

1. Lurraldea nazioartean kokatzea, enpresa- eta ekintzaile-aukerako lurralde gisa, batez ere mugikortasunaren, energia, foodtech, fintech eta digitech arloetan.

2. BAT-en egonaldia amaitutakoan erreferentziako startupak erakartzeko gunea izatea, euskal enpresa-sarea modernizatzen laguntzeko scaleup fasean. Horretarako, BAT-ren elementu bereizgarria erreferentziatzko nazioarteko ekintzailtza-nodo anitzekiko konektagarritasunean oinarrituko da, bere aliantza-sareari esker.

3. Enpresa- eta ekintzaile-sare teknologiko aurreratua gune bakar batean biltzea, startupak (negozioan) eta korporazioak (berrikuntza-mailan) elkarrekin hazteko elkarguneak ezarrita.

4. Parte hartzen duten korporazioen berrikuntza-arloak lotzea. Horrek enpresa bakoitza aberasten eta baterako negozio-aukera berriak agertzen lagunduko du, barne-ekintzailtza-ekimenak garatuz.

#### Hirugarrena.- Alderdien konpromisoak

1. Bilboko Udalak, Bilbao Ekintza enpresa-erakunde publikoaren bitartez, betebeharrak hauek izango ditu:

- I. eranskinean banakatutako diru-ekarpenak egitea, eta Bizkaiko Foru Aldundiari transferitzea, proiektua egiteko aurreikusitako faseen garapenaren arabera,

Los objetivos estratégicos de BAT son:

1. Posicionar internacionalmente el Territorio como un escenario de oportunidad empresarial y emprendedor, especialmente en las áreas de movilidad, energía, foodtech, fintech y digitech.

2. Ser un polo de atracción de startups de referencia que, una vez finalizada su estancia temporal en BAT, se consoliden definitivamente contribuyendo así a la modernización del tejido empresarial vasco en la fase scaleup de las mismas. Para ello el elemento diferencial de BAT se centrará en su conectividad con múltiples nodos internacionales de emprendimiento de referencia gracias a su red de alianzas.

3. Concentrar en un único espacio tejido empresarial y emprendedor tecnológicamente avanzado buscando puntos de confluencia que lleven al crecimiento mutuo de startups (en negocio) y de corporates (en su nivel innovación).

4. Conectar las áreas de innovación de las empresas corporate participantes, lo cual contribuirá al enriquecimiento individual de cada empresa y a la aparición de nuevas oportunidades de negocio conjuntas, desarrollando iniciativas de intraemprendimiento.

#### Tercera.- Compromisos de las partes

1. El Ayuntamiento de Bilbao, a través de su entidad pública empresarial Bilbao Ekintza, se obliga a:

- realizar las aportaciones dinerarias desglosadas en el anexo I, que serán transferidas a la Diputación Foral de Bizkaia de acuerdo con el desarrollo de las fases previstas para la realización del proyecto,



- B Accelerator Tower-en funtzionamendu egokirako beharrezko jarduketan erabakian parte hartzea, laugarren klausulan araututako Jarraipen eta Kontrol Batzordearen bitartez eta klausula horretan aurreikusitako baldintzetan,

- egindako jardueren jarraipenean, justifikazioan eta egiaztapenean parte hartzea, laugarren klausulan araututako Jarraipen eta Kontrol Batzordearen bidez eta bertan aurreikusitako baldintzetan.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak betebeharrak hauek izango ditu:

- I. eranskinean banakatutako zenbatekoen diru-ekarpena egitea, jarduketan garapeneraren arabera,

- BATen funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren jarduerak finkatzen parte hartzea, laugarren klausulan aurreikusitako Jarraipen eta Kontrol Batzordearen bidez eta klausula horretan aurreikusitako baldintzetan.

Aldeetako batek hitzarmen honen ondorioz bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, hitzarmena bertan behera utzi ahal izango da hamaikagarren klausulan araututako moduan.

3. Bi erakundeei aplikatu dakiekeen erregulazio komuna

Honako hauek hartuko dira hitzarmena gauzatzearen ondorioz sortutako gastu onargarritzat: indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatuta egon arren, hitzarmenaren likidazio-egunean ordainduta daudenak, beharrezkoak direnak eta hitzarmenaren xedearen izaerari eta garapen normalari zalantzarik gabe erantzuten diotenak.

-participar en la decisión de las actuaciones necesarias para el buen funcionamiento del B Accelerator Tower, a través de la Comisión de Seguimiento y Control regulada en la cláusula cuarta y en los términos contemplados en dicha cláusula,

-participar en el seguimiento, justificación y comprobación de las actuaciones realizadas, a través de la Comisión de Seguimiento y Control regulada en la cláusula cuarta y en los términos en ella previstos.

2. La Diputación Foral de Bizkaia se obliga a:

- realizar la aportación dineraria de las cantidades desglosadas en el anexo I, de acuerdo con el desarrollo de las actuaciones,

- participar en la fijación de las actuaciones necesarias para el buen funcionamiento de BAT, a través de la Comisión de Seguimiento y Control prevista en la cláusula cuarta y en los términos contemplados en dicha cláusula.

El incumplimiento por alguna de las partes de las obligaciones asumidas en virtud de este convenio podrá dar lugar a la resolución del mismo en los términos regulados en la cláusula undécima.

3. Regulación común aplicable a ambas entidades

Se considerarán gastos admisibles derivados de la ejecución del convenio, susceptibles de ser financiados por las aportaciones financieras de las partes, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, estén pagados a la fecha de liquidación del convenio, sean necesarios y respondan de manera indubitada a la naturaleza y al normal desarrollo del objeto del convenio.



#### 4. Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren baimena

Hitzarmen honek ez du jasotzen Bilboko Udalaren aldeko finantza-transferentziarik dakarren konpromiso ekonomikorik. Hala ere, hitzarmena gauzatzetik edo edukia aldatzetik betebeharrak hori ondorioztatzen bada, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari baimena ematen zaio, Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako kasuan, transferentzia horiek atxikitze sistema bat adosteko.

#### Laugarrena.- Jarraipen eta Kontrol Batzordea

Hitzarmen honen jarraipena, interpretazioa eta kontrola egiteko eta hitzarmenaren ondorioz alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, Jarraipen eta Kontrol Batzorde bat sortuko da, klausula honetan xedatutakoaren arabera arautuko dena.

##### 1.Funtzioak

a) hitzarmenaren garapenaren eta betearazpenaren jarraipena eta kontrola egitea, eta testua interpretatzeko aldean artean sor daitezkeen arazoak eta/edo zalantzak konpontzea,

b) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52.3 artikuluan ezarritako eginkizunak betetzea, hitzarmena suntsiarazten den kasurako, eta gauzatzeko ari diren jarduketak daudenean,

c) hitzarmena azkentzean egindako jarduketak egiaztatzeak eta egitea,

d) hitzarmen honek esleitzen dion beste edozein.

#### 4. Autorización del Consejo Vasco de Finanzas Públicas

Este convenio no contiene compromisos económicos que impliquen transferencias financieras a favor del Ayuntamiento de Bilbao. No obstante, si de la ejecución del convenio o de una eventual modificación de su contenido resultase tal obligación, se autoriza al Consejo Vasco de Finanzas Públicas para que, en el supuesto previsto en el artículo 24 del Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, acuerde un sistema de retención de tales transferencias.

#### Cuarta. - Comisión de Seguimiento y Control

Para el seguimiento, interpretación y control de este convenio y para garantizar el cumplimiento de las obligaciones asumidas por las partes en virtud del mismo, se crea una Comisión de Seguimiento y Control que se regirá por lo dispuesto en esta cláusula.

##### 1.Funciones

a) realizar el seguimiento y control del desarrollo y ejecución del convenio y resolver los problemas y/o dudas de interpretación de su texto que pudieran surgir entre las partes,

b) realizar las funciones establecidas en el artículo 52.3 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, para el supuesto de resolución del convenio existiendo actuaciones en curso de ejecución,

c) elaborar el acta de comprobación de las actuaciones realizadas a la extinción del convenio,

d) cualquier otra que le sea atribuida por este convenio.

## 2 Composición

Batzordea bost pertsonak osatuko dute, eta hitza eta botoa izango dute; horietako hiru Bizkaiko Foru Aldundiak izendatuko ditu, eta bi Bilboko Udalak. Lehendakaria Bizkaiko Foru Aldundiak aukeratutako pertsonetako bat izango da. Idazkaritza, Bizkaiko Foru Aldundiak ere izendatua, Beaz, SAU. foru sozietate publikoaren ordezkari batek beteko du.

## 3.Funtzionamendua

Lehendakariari dagokio bilerak deitzea eta zuzentzea, eta idazkaritzari dagokio aktak egitea eta aktak eta Batzordeak erabiltzen dituen gainerako dokumentuak artxibatzea eta zaintzea.

Batzordea hitzarmen honetan deskribatutako eginkizunak betetzeko behar den aldizkakotasunarekin bilduko da, eta, nolahi ere, urtean bitan gutxienez, baita aldeetako batek eskatzen duen guztietan ere.

Erabakiak Batzordea osatzen duten kideen gehiengo soilez hartuko dira, eta Lehendakariari dagokio berdinketarik gertatuz gero bere botoarekin erabakitzea.

## 4. Beste gai batzuk

Batzordearen funtzionamendurako beharrezkoak diren baliabideak alderdien ohiko baliabideekin hornituko dira.

Batzordea ez da administrazio-organoa, eta, beraz, ez du administrazio-egintzak emateko edo administrazio-ahalak erabiltzeko ahalmenik.

Hitzarmen honetan Batzordearen araubide juridikoari eta funtzionamenduari buruz aurreikusi ez den guztirako, 40/2015 Legearen Atariko Tituluko II. kapituluko 3. atala aplikatuko da, administrazio publikoen kide anitzeko organoei buruzkoa.

## 2. Composición

La Comisión estará formada por cinco personas con voz y voto, tres de ellas designadas por la Diputación Foral de Bizkaia y dos por el Ayuntamiento de Bilbao. La Presidencia corresponderá a una de las personas elegidas por la Diputación Foral de Bizkaia. La Secretaría, designada también por la Diputación Foral de Bizkaia, será desempeñada por una persona representante de la sociedad pública foral Beaz, SAU.

## 3.Funcionamiento

Corresponderá a la Presidencia la convocatoria y dirección de las reuniones y a la Secretaría la elaboración de actas y el archivo y custodia de éstas y demás documentación de uso por la Comisión.

La Comisión se reunirá con la periodicidad precisa para el cumplimiento de las funciones descritas en este convenio y, en todo caso, como mínimo dos veces al año, así como siempre que lo solicite alguna de las partes.

Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple de las personas que integran la Comisión, correspondiendo a la Presidencia dirimir con su voto los empates que pudieran darse.

## 4.Otras cuestiones

Los medios necesarios para el funcionamiento de la Comisión serán proveídos con los recursos ordinarios de las partes.

La Comisión no tiene naturaleza de órgano administrativo y, por lo tanto, carece de la facultad de dictar actos administrativos o ejercer potestades administrativas.

Para todo lo no previsto en este convenio respecto al régimen jurídico y funcionamiento de la Comisión será de aplicación la sección 3ª del capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015 relativo a los órganos colegiados de las administraciones públicas.

#### **Bosgarrena.- Hitzarmenaren indarraldia**

Hitzarmen hau sinatzen den unean jarriko da indarrean, eta lau urteko iraupena izango du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 49.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, alderdi sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute epe hori luzatzea, gehienez ere beste lau urtez, edo iraungitzea erabaki ahal izango dute. Hori guztia alde bakoitzak edo biek modu koordinatuan gauzatzen dituzten ekintzailatza sustatzeko politiken jarraipenari kalterik egin gabe.

#### **Seigarrena.- Alde bakoitzak egin beharreko jarduerak justifikatzeko eta kontrolatzeko epea eta modua.**

Egindako jarduketak justifikatze aldera, Bizkaiko Foru Aldundiak agiri hauek aurkeztuko ditu:

- hartutako konpromisoak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.
- hitzarmen hau gauzatzeak eragindako gastuak justifikatzeko memoria ekonomikoa.

#### **Zazpigarrena.- Hitzarmena aldatzeko araubidea**

Hitzarmen hau aldatu ahal izango da alderdiek aho batez, berariaz eta idatziz hala erabakitzen badute.

#### **Quinta.- Vigencia del convenio**

Este convenio entrará en vigor en el momento de su formalización y tendrá una duración de cuatro años, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.h) de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.

En cualquier momento antes de la finalización de ese plazo las partes firmantes podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o acordar su extinción. Todo ello sin perjuicio de la continuidad de las políticas de fomento del emprendimiento que ejecute cada una de las partes o ambas de manera coordinada.

#### **Sexta. - Plazo y forma de justificación y control de las actuaciones a realizar por cada una de las partes.**

En aras a la justificación de las actuaciones realizadas, la Diputación Foral de Bizkaia aportará la siguiente documentación:

- una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de los compromisos asumidos, con indicación de las actuaciones realizadas y los resultados obtenidos.
- una memoria económica justificativa de los gastos derivados de la ejecución de este convenio.

#### **Séptima. - Régimen de modificación del convenio**

Este convenio podrá ser modificado por acuerdo unánime, expreso y escrito de las partes.

### Zortzigarrena.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak uste dute aurrerapen sozial eta ekonomiko iraunkorra lortzeko beharrezkoa dela paraleloki aurrera egitea emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko bidean, eta, horregatik, hitzarmen honen esparruan garatzen diren jarduera guztiak martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena) eta ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren (emakumeen eta gizonen berdintasunerako) aginduetara egokituko dira

Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planak Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasunaren arloko politika publikoak garatzeko esparru estrategikoa eskaintzen du 2021-2024 ekitaldietan.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Udal Planak Bilboko Udalaren berdintasun-politikak garatzeko esparrua eskaintzen du 2020-2023 ekitaldietan.

### Bederatzigarrena. Laguntzeko betebeharra

Aldeek konpromisoa hartzen dute bakoitzak bere organoak egin ditzakeen kontrol-eginkizunetan laguntzeko.

### Hamargarrena.- Hitzarmena azkentzea

Hitzarmen hau iraungi egingo da osorik betetzen bada edo suntsiarazten bada.

Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak dira:

### Octava. - Normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres

La Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao consideran que para lograr un progreso social y económico sostenible es necesario avanzar paralelamente en la consecución de una igualdad real y efectiva de mujeres y hombres, y por eso, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este convenio se adecuarán a los mandatos del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres.

El VI Plan Foral para la igualdad de mujeres y hombres de Bizkaia ofrece el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia durante los ejercicios 2021-2024.

El V Plan municipal para la igualdad de mujeres y hombres ofrece el marco de desarrollo de las políticas de igualdad del Ayuntamiento de Bilbao durante los ejercicios 2020-2023.

### Novena Obligación de colaboración

Las partes asumen el compromiso de colaborar en las funciones de control que al efecto pudieran llevarse a cabo en cada una de ellas por sus respectivos órganos.

### Décima. - Extinción del convenio

Este convenio se extinguirá por su íntegro cumplimiento o por resolución.

Son causas resolutorias del convenio:

- indarraldia luzatzea berariaz erabaki gabe igarotzea, edo adostutako luzapen-aldia amaitzea, hala badagokio.

- alderdi sinatzaileen aho bateko akordioa

- alde batek edo biek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea, betiere betebeharrak edo konpromisoaren bat betetzen ez duen alderdiak egutegiko hogeita hamar (30) eguneko epean konpondu ez badu, beste alderdiak ez betetzea jakinarazten dion egunaren hurrengotik zenbatzen hasita. Errekerimendua batzordeari eta beste alderdiari jakinaraziko zaio.

- hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabakiaren bidez.

- hitzarmen honetan edo legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik

Hitzarmen honetako xedapenen bat deuseztatzeak ez du ekarriko haren erabateko deuseztasuna, xedapena funtsezkoa denean izan ezik. Hala ere, hitzarmen honetako xedapenen bat deuseztasun-arrazoiaren bat izanez gero, aldeek konpromisoa hartzen dute hitzarmena aldatzeko, legezketasunari egokitzeko, hitzarmenean aurreikusitako helburu eta helburuei eusteko eta hitzarmenaren aldaketa sinatzeko.

#### Hamaikagarrena.- suntsiaraztearen ondorioak

40/2015 Legearen 52. artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmen hau betetzeak edo suntsiarazteak likidatu egingo du, alderdi bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko.

Aldeek hitzartutako ekarpenak ezin izango dira izan hitzarmena gauzatzearen ondoriozko gastuak baino handiagoak. Ekarpene horiek hitzartutako proiektuaren finantzaketan

-el transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado expresamente su prórroga, o por la finalización del periodo de prórroga acordado, en su caso

-el acuerdo unánime de las partes firmantes

-el incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por una o ambas partes, siempre y cuando la parte incumplidora no haya subsanado en un plazo de treinta (30) días naturales a contar desde el siguiente a aquel en que la otra parte le hubiere notificado el incumplimiento. El requerimiento será notificado a la Comisión y a la otra parte.

-por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio

-por cualquier otra causa prevista en este convenio o las leyes

La nulidad de alguna de las disposiciones de este convenio no determinará la nulidad total del mismo, salvo que la disposición fuese de carácter esencial. No obstante, en el caso de que alguna de las disposiciones de este convenio incurriera en causa de nulidad, las partes se comprometen a modificarla adaptándola a la legalidad de tal manera que se mantengan los fines y objetivos previstos en la misma y a suscribir la correspondiente modificación del convenio.

#### Undécima. - Efectos de la resolución del convenio

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 52 de la Ley 40/2015, el cumplimiento o resolución de este convenio dará lugar a su liquidación con el objeto de determinar las obligaciones y compromisos de cada una de las partes.

Las aportaciones comprometidas por las partes no podrán ser superiores a los gastos derivados de la ejecución del convenio. Dichas aportaciones van destinadas a cubrir las

beharrak asetzera bideratuta daude, eta, beraz, gehiegizko finantzaketa kalkulatzeko, hitzartutako proiektuari egotz dakizkiokeen beste diru-sarrera edo laguntza batzuk hartu beharko dira kontuan.

a) likidaziotik ondorioztatzen bada finantzaketa jaso duenak gauzatutako jarduketan zenbatekoa txikiagoa dela exekuzio hori finantzatzeko jaso dituen funtsak baino, beste laguntza eta diru-sarrera batzuekin batera, beste aldeari itzuli beharko dio soberakina, likidazioa onartu eta hilabeteko epean.

Hilabete horretan itzulketarik egin ez bada, aplikatu beharreko berandutze-interesa ere ordaindu beharko da, une horretatik hilabeteko epean. Interes hori, nolahi ere, gastu publikoa eta sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen dituzten xedapen orokorretatik eratorritakoa izango da.

b) Aldiz, hitzarmena gauzatzean egindako jarduketan zenbatekoa hitzartutako proiektuari egotz dakizkiokeen diru-sarrerak baino handiagoa bada, beste alderdiak, likidazioa onartu eta hilabeteko epean, aldea ordaindu beharko dio, bakoitzak hitzarmenaren arabera emango duen kopuruaren gehieneko mugarekin.

#### **Hamabigarrena.- Datu pertsonalen babesa**

Datu pertsonalen babesaren arloan hitzarmen honi aplikatu behar zaizkion arauak hauek dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko dena.

necesidades de financiación del proyecto convenido por lo que el hipotético exceso de financiación deberá ser calculado siempre en concurrencia con otros ingresos o ayudas imputables al proyecto convenido.

a) si de la liquidación resultara que el importe de las actuaciones ejecutadas por la receptora de la financiación fuera inferior a los fondos que la misma hubiera recibido para financiar dicha ejecución, en concurrencia con otras ayudas e ingresos, deberá reintegrar a la otra parte el exceso, en el plazo de un mes desde la aprobación de la liquidación.

Transcurrido ese mes sin que se haya producido el reintegro, se deberá abonar, también en el plazo de un mes a contar desde ese momento, el interés de demora aplicable que será, en todo caso, el que resulte de las disposiciones de carácter general reguladoras del gasto público y de la actividad económico-financiera del sector público.

b) si, por el contrario, el importe de las actuaciones realizadas en ejecución del convenio fuese superior a los ingresos imputables al proyecto convenido, la otra parte, en el plazo de un mes desde la aprobación de la liquidación, deberá abonarle la diferencia con el límite máximo de la cantidad que cada una se hubiese comprometido a aportar en virtud del convenio.

#### **Duodécima.- Protección de datos de carácter personal**

La normativa aplicable al presente convenio en materia de protección de datos es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

## Hamahirugarrena.- Izaera, araubide juridikoa eta jurisdikzioa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzak betetzen ditu. Bertan xedatutakoaz gain, zuzenean edo analogiaz aplika daitezkeen zuzenbide substantiboko arauak ere aplikatuko dira.

Zehazki, aipatutako 40/2015 Legeaz gain, honako hauek aplikatuko zaizkio: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea eta Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina garatzen duen Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Erregelamendu Orokorra onartzen duen abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dagoen hitzarmena da, lege horren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera; hala ere, hitzarmena interpretatzean eta gauzatzean sor daitezkeen zalantzak eta/edo hutsuneak Kontratuen Legean jasotako printzipioak aplikatuz konpondu ahal izango dira, lege horren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmena garatu eta betearaztean alderdien artean sor daitezkeen auziak, laugarren klausulan aurreikusitako Jarraipen eta Kontrol Batzordearen ondorio izan ezin daitezkeenak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

## Decimotercera. - Naturaleza, régimen jurídico y jurisdicción

Este convenio tiene naturaleza administrativa y cumple con los requisitos establecidos en los artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de derecho sustantivo que directamente o por analogía puedan resultar de aplicación.

En particular, le será de aplicación además de la mencionada Ley 40/2015, la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi y el Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria.

Se trata de un convenio excluido del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, de acuerdo con lo dispuesto en su artículo 6, si bien las dudas y/o lagunas que pudieran suscitarse en su interpretación y ejecución podrán resolverse aplicando los principios contenidos en la citada Ley de Contratos, de conformidad con lo estipulado en su artículo 4.

Las cuestiones litigiosas que pudieran surgir entre las partes durante el desarrollo y ejecución del convenio y que no puedan ser resueltas en la Comisión de Seguimiento y Control prevista en la cláusula cuarta, se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.





Hitzarmen honetan aurreikusi ez den guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, aldeei aplikagarri zaien foru- edo udal-araudia, hurrenez hurren, eta aplika daitekeen beste edozein xedapen.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute.

Para todo lo no previsto en este convenio será de aplicación la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público, la normativa foral o municipal respectivamente aplicable a las partes, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Y, para que conste y surta los efectos oportunos donde proceda, las partes firman el presente convenio.

### I. Eranskina / Anexo I

Urteak/ Anualidades	Bilboko Udalaren diruzko ekarpena / Contribución dineraria del Ayuntamiento de Bilbao	Bizkaiko Foru Aldundiaren diruzko ekarpena / Contribución dineraria de la Diputación Foral de Bizkaia
2023	313.962,00€	1.213.988,00 e
2024	1.309.821,00€	2.408.293,00 €
2025	488.385,00€	1.627.379,00 €
2026	971.023,00€	2.019.854,00 €
2027	418.616,00 €	1.571.905,00 €
2028	313.962,00 €	1.017.038,00 €
2029	313.962,00 €	775.038,00 €
2030	272.100,00 €	768.500,00 €
	<b>4.401.831,00 €</b>	<b>11.401.995,00€</b>